

## LABRIT MULTIMEDIA S.L.ren eta OÑATIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Oñatin, 2024ko uztailaren 4an

Batetik, OÑATIKO UDALA (Egoitza: Foruen Enparantza, 1 / I.F.K.: P2006300D), eta haren izenean eta haren ordezkari, Izaro Elorza Arregi alkatea. Bere karguarekin bat, behar hainbateko ahalmena dauka ekitaldi hau egiteko.

Eta bestetik, LABRIT MULTIMEDIA SL, egoitza Iruñeko Labrit kaleko 29an, 1ean eta IFK B71008940 duena, eta haren izenean eta ordezkari gisa Gaizka Aranguren Urroz, 29148247W NAN zenbakiduna, egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituena, Iruñeko José María Marco García-Mina notarioaren aurrean 2009ko maiatzaren 4an sinatutako eskrituren arabera, 667 protokoloa.

Bi aldeek legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri agiri hau sinatzeko. Horrenbestez,

### AZALTZEN DUTE

LEHENA.- Irulegiko aztarnategian (Aranguren, Nafarroa Garaia) Aranzadi Zientzia Elkartek 2021ean aurkitutako brontzezko eskua eta, bereziki, bertan ageri den idazkunari buruzko **"Eskuaren Mintzoa"** izeneko nazioarteko proiektioa izanzen duen filma-dokumentala sortzeari ekin diogula Aranzadi Zientzia Elkartea, Labrit Multimedia eta On-Produktzioak ekoiztetxeok.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen helburua, Oñatiko Udalaren eta Labrit Multimediaren arteko lankidetzarako hitzarmena finkatzea da.

HIRUGARRENA.- Oñatiko Udalak 3.000 € diru-laguntza emango dio Labrit Multimediari, funts galdurako, hain zuzen ere proiektuak eragindako gastuei edota berauen zati bati aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza hau Udalak Labrit Multimedia S.L.ren **ES85 3035 0058 35 0580094044** kontu korrontean abonatu da.

BOSGARRENA.- Labrit Multimediak, Udalari eskainitako laguntza eskertzeaz gain, Oñatiko Udaleko logoa dokumentalaren kredituetan babesle bezala sartzeko konpromezua hartzen du. Horretaz gain, dokumentala erabat bukatuta dagoenean emititzeko prest, horren esteka bat pasatuko dio Udalak dokumentalaren aurkezpena egin ahal izateko, horrela nahi izanez gero.

Adierazitako guztiaren adostasunaren adierazgarri, agiri hau jaulki, eta ale bikoitzean sinatzen da goiburuan zehazturiko lekuan eta datan.

OÑATIKO UDALAREN IZENEAN

LABRIT MULTIMEDIA S.L.ren IZENEAN

Izaro Elorza Arregi

Gaizka Aranguren Urroz



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Hitzarmena

**CSV/EKS:**

SINAacebeccc-9af3-4b27-aa56-5af8801692ef